

Bidaia erraz eta irisgarri

metro bilbao

Igogailuak eta eskailera mekanikoak

- **Gurpildun aulkietan** doazen pertsonek **erabateko lehentasuna** dute metroko igogailu guztietan.

- **Haur-aulkidunek, adinekoek eta mugitzeko oztoporen bat duten beste kolektibo batzuek** (makuludunak, haurdunak...) lehentasuna dute beste pertsona batzuen aldean, eta **heltzen diren ordenan** sartuko dira, gurpildun aulkidunen ondoren.

- Santutxu, Abando eta Bagatza geltokietako kaleko igogailuak gaueko zerbitzua dagoenean erabiltzeko, mugitzeko oztoporen bat duten pertsonek kanpoan seinalatuta dagoen botoia sakatuko dute.




- Argi berdeak jarri dira **eskailera mekanikoen** hasierako eta amaierako mailak markatzeko.

Nasak

- Nasaren eta trenaren arteko tarte horizontala eta bertikala gutxitzeko plataformak daude behar den geltokietan. Nasetan daude, gurpildun aulkientzako eta haurren aulkientzako ateak irekitzeko seinalatutako tokietan.

  - Altuera-tartea gainditzeko arrapalak



  - Trenera sartzeko tartea murrizteko gomazko profilak.*



*ezartze-fasean.

Balioztatze-lerroa

- Gurpildun aulkidunek, haur-aulkidunek edo gauza handiekin doazenek balioztatze-makina zabala erabiliko dute.

- Haur-aulkiak eta gauza handiak aurrean jarrita eta norberarekin batera igaroko dira.

- Laguntzailearen bidaia doan izango du gurpildun aulkidunak, itsuak edo % 45 edo gehiagoko ezgaitasuna eta mendetasuna aitortuta dituenak.

- Metroko langileek gutxienez % 90eko ikusmen-gabeziaren egiaztagiria eskatu ahal izango dute.



- Balioztatzaileek soinu-alerta bat dute saldoa 2 € edo gutxiago dela ohartarazteko.

Trenak

Soinu- eta argi-oharrak

- Ateak itxiko direla soinu- eta argi-gailuen bidez ohartarazten da. **Ez sartu trenera eta ez irten trenetik ohar hori ematen ari direnean.**

- Hurrengo geltokia argiak iragartzen du ateen gaineko planoan. Garraio-loturak dituzten geltokiak megafoniaz iragartzen dira.




Haurdunak eta adinekoak

- **Eserleku grisak** haurdun, adineko eta makuludunentzat dira.
  - Seinaleak bizkarrean, leihoan eta aterik gertuenetan jarrita dituzte.



- **Utzi libre,** kolektibo horiek erabilgarri izateko beti.



Gurpildun aulkiak eta haur-aulkiak

- Trenaren **lehen eta azken** bagoietan gurpildun aulkietan edo haur-aulkiekin doazen pertsonentzako guneak daude.





  - Ateak, leihoak eta zoruak seinalatuta daude dagokien piktogramekin.

- Barruan **gurpildun aulkietarako gunea dago.**



  - Gune horretan **segurtasun-uhala, lepo-euskarria** eta, trenetik irteteko denbora gehiago behar izanez gero, gidaria ohartarazteko **botoi gorria** daude.

- Barruan **haur-aulkietarako gunea** dago, tren osoan onartu arren.



Bizikletak eta surf-oholak

- Trenera horrelakoekin sartu ahal izatea okupazio-mailak baldintzatuko du. Metroko langileek sartzea muga lezakete baldin eta trena oso beteta badoa.

- Barruan, bizikleta edo surf-ohola daramana **bagoien arteko eraztunen plataformen ondoan seinalatuta dagoen lekura** joango da, eta ohola bertikal jarriko du, igarotzen uzteko.



Informazioa eskuragarri


Navilens

- QR euskarriak atarteko zein nasetako teleadierazleetan ageri den informazioa ematen du, denbora errealean.
- Urrunetik irakurtzen da, argitasun- edota angelu-mugarik gabe.
- QR kodeen irakurketa bideratzen du app hauetatik:
  - Navilens: ikusmen urrikoak edo guztiz itsuak direnentzat.
  - Navilens Go: ikusmen urria edo bestelako ezgaitasunen bat dutenentzat




Nasa-norabideen braille seinaleak

- Ikusteko zailtasuna duten pertsonek nasaren norabidea jakin eta bide zuzena hartzeko aukera dute atarteko eskaileretako eskudelen behealdean dagoen braille seinaleak ukituz.



Sare-mapak

- Metroa zelan erabili ulertzea errazten duten sare-mapa berriak. Gainera, informazio gehiago izateko QR kodeak ere badituzte.



Interfonoak eta txarteldegiak


- **Interfonoak** geltokian zehar Metro Bilbaoko langileekin hitz egiteko.

- Bideo-interpretazioko zerbitzua gorrentzat:

  - Entzumen-arazoak dituzten pertsonek eskura dute zerbitzu hori geltokietako interfono guztietan. Interfonoan dagoen QR kodetik jaisten den app-tik zeinu-hizkuntzako bideo-interpretazioko zerbitzuari deitzen zaio.



- **Txarteldegietan** euskarria erosi edo txartela kargatzen laguntzea
  - Aginte-gailuekin piztu eta soinuarekin bideratzea.
  - Ahotsez gidatzea erosketa-prozesu osoa.
  - Braile biniloak pantailaren izkinetan.



Bidaia on!

900 840 655

metro bilbao

metrobilbao.eus

Noviembre 2024